

Hartzaren bortz hatzak

AINGERU EPALTZA

Aurtengo udan, aurreko urteetako udan ez bezala, ez dugu *Camille* hartzaren berririk batere izan. Poz batean ibili dira Erronkaribarko, Ansoko eta Baretozko artaldeak, piztiaren bisitaldi bortitzik gabe. Camille Nafarroako Gobernuako mendizain batzuek ikusi zuten azkenekoz. Gardeko udal mugapean gertatu zen, joan den apirilean. Behi baten sarraskia klikatzen ari omen zen. Gizakiak hamar bat metrora hurbildu ahal izan omen zitzaizkion hura ohartu gabe. Mendizainek prentsari adierazi ziotenez, animaliak moteldurik ematen zuen, eta hazteriak joa ageri zitzaion bizkar gaineko larrua. Errukarria! Zentzumenak urriturik eta eri dagoena ez da luze ibiltzekoa Pirinioetako malakar eta oihanetan. Hartzza izanda ere. Geroztik, erran dut, isiltasuna. Eta isiltasunak herio urrina dakar. Litekeen-litekeena da aro ederrak Camilleren azken loa ekarri izana.

Camille pertsonaia famatua bilakatua zen. Komikietan agertzen zen. Ezkaurre mendiaren gibelaldean haren izena du eskalada-bide zail batek. “Camille extreme” bataiatu dute Belabartzetik Izabaraino egiten duen lasterketa (artetik errateko, zer ote da mendira lasterka bizian igotzeko pitokeria hori, paisaiari eta inguruneari begiratu ere gabe?). Ez dut uste ospe horrek bozkario handirik ekarri dionik. Camille bere bakantasunak famatu du. 25 bat urte zituen, baina bere bizi gehien-gehiena bakarrik egin du, bere itzalaren itzal. Arra zen, eta segimendua egin dioten zientzialarien ustez, emerik ezagutu gabe konplitu du bere mundualdia. Erradazue hori baino zoritxar handiagorik ote den! Manex Etxamendiren *Gilentegiko Gilen* nobelako pertsonaia nagusia bezala, bazter hauetako herri ttipietako donado edo mutilzahar bakartien gisara egin ditu Camillek bere hondar urteak.

Segidarik gabeko etxaldeko jauna. Horra zer izan den Camille. Hartz arre batentzat ere ez zen samurra izanen bere arrazako azkena edo azkenetakoa izatea. Euskal Herriko azken hartzza bai, bederen. Baina ez Euskal Herrikoa

bakarrik. Arestian erran dut: Biarno eta Aragoi auzoetako mugek ez zioten atzera eragiten. Gizakiek ez bezala, hartzek ez dute ez oraingo ez lehengo mugen berri. Camille, beraz, biarnesekin eta aragoiarrekin partekatzen genuen ondasuna zen. Nik ez dut Camille gaztelaniaz edo frantsesez imajinatzeko. Gizakien hizkuntzetan mintzatzeko ahalmena izan balu, euskaraz, okzitanieraz eta aragoieraz eginen zuen mintzo. Eta horretan ere, zer bakan gure Camille!

Zerbait edo norbait “animaliak eta gauzak mintzatzeko zireneko garaikoa” zenean, arras aspaldikoa zela ulertzen zuen lehengo euskaldunak. Hartzak ere —hiztuna izan ala ez— aspaldi-aspaldiko denboretako aztarna iduri du gaur egun gure artean. Txomin Peillen euskaltzainak aztertu ditu hobekienik giza-kiaren eta hartzaren arteko joan-etorri bihurriak, Santa Grazi bere zuberotar zokoko zaharren testigantzan oinarriturik. *Animismua Zuberoan* haren liburuan irakurrita jabetzen gara harreman horien alde bitasun kontraesankorraz. Hartzari aldi berean miresmenez eta gorrotoz behatu izan baitio Pirinioetako jendeak. Gorrotoz, bere azienden eta erlauntzen suntsitzaila ezin aseari. Miresmenez, ezaugarri gizatiarrez jantzirik ageri zen izakiari.

Darwinek bere lanak argitaratu baino aise ere lehenago zekiten Pirinioetako gizon-emakumeek animaliak zituztela arbaso. Gure mendietako jendeek, ordea, urrun zuten tximinoa. Hartza egin zuten ahaide. Zerk hartaratu zituen? Delako piztiak gibeledko hanken gainean zutik ibiltzeko duen ahalmena ez zen noski izanen arrazoietako azkena. Bertzalde, ikusiak zituzten, erreka bazterretako lokatzean, haren zango zapalek utzitako markak. Ez zitzairen luze joan zenbatzen: bat, bi, hiru, lau... BORTZ! Hartzak bortz hatz baititu zangoetan: bortz hatz, ez lau, gainerako ugaztunen gisara. Horra hartzak eta gizakiak kidetzen dituen bertze ezaugarria. Beharbada oraino geldituko da Biarno Garaian hartzari *Martin* erraten dionik. “*Martin* inguruan zabilek”, xuxurlatzen omen zuten hartza beren artaldean usman sumatzean. Amiküzten eta Lapurdin, berriz, *martintzar* erraten zioten laborari garo-kirats findu gabeari. Karriara inoiz jaitsi gabe, goiko oihanean bizi den lehengusu basa, batzuetan ahalkegarri, bertzetan libertigarri... horra zeren traza harrapatuko zioten zango-zapalari.

Mendikate osoan, Ipar Kataluniako Conflent-etik gure Iratiraino, elezhar eta ipuinak aurkitzen ditugu, hartzak bahitu eta gero ernaldu neska gazteen gainean. Bortxazko harreman horien fruitu dira Pirinioetako elezharretako giza-hartz kataluniar, okzitaniar, aragoiar eta euskaldun guztiak. Guk dakigula, gure Camille gizagaixoak ez zuen inoiz halako bide politikoki ez

zuzenera jo bere kastitateari itzuri egin beharrez, neska mendizale xarmantak falta izan ez baditu ere bere jabegoetan.

Ez zen inguruan halakorik hartzaren hurbiltasuna sentitzeko parada izan nuen lehen aldian. Hiru hamarkada ederki joanak dira handik goiti, 14-15 urte nituen orduan. Mutiko talde bat geunden, uztailaren bukaeran, Lintzan kanpaturik, Anso garaian. Orain baino azienda gehiago ibiltzen zen orduan bazter haietan. Arratsalde hartan berean, solasean ari izanak ginen, Lapakiza mendiaren mazelan, artzain ansoar batekin.

— Bart hartza aditu dut artaldearen inguruan. Gauza bera erran dit lehen-gusuak.

Ez genion sinetsi. Uste izan genuen mukizu hiritarrak izutu nahian zebilela. Gau hartan, goiz joan ginen zakura. Argi-hasterako jaikitzeakoak ginen biharamunean. Gauerdian, zalaparta batek atzarri gintuen. Bortu aldetik heldu zen. Marrakak, zintzarriak, suzirien danbatekoak. Eta ororen gainetik, giza eztarriek jaurti oihua: “l’onso! l’onso!”.

Hura beldurra eta ikara, gau hartakoa. Eta hura lilura, biharamunekoa, mendietako jaun bakartia hain hurbil izana genuela oroitzean.

Pirinioetako biztanleendako lehenagoko denboretan bezala, hiritar naturazale anitzendako lilura-iturria da hartza. Lilura horrek, ordea, arras etorki diferentea du batarengan eta bertzearengan. Hartzaren gizatasun itxurazkoak liluratzen zuen Pirinioetako jende “zibilizatu gabea”. Hiritetako “jende zibilizatuok”, berriz, basa-bizitzaren eta, funtsean, basatasunaren irudia den neurrian miresten dugu hartza. Horrexegatik, orobat, guri ere sentipen kontra-jarriak pizten dizkigu animaliatzarrak, mendikateko biztanleei bezala. Lilura klase horrek beldurra baitakar berarekin. Asteburuetan, gure bulegoak eta lan-tegiak utzita mendikatera hurbiltzen garenean, maite dugu gure ibilbideen inguruan basa-animaliak ere ibiltzen direla jakitea. Alabaina, hartzaren eta bertzeren baten kasuan, nahiago harekin buruz buru ez topatu.

Pirinioetako gizonak ez dakit beldurrik zion hartzari. Gorrotoa, bai, bederen, eta gorrotoa gailendu zaio aspaldiko lilurari, hartza ia guztiz desagerrarazteraino. Pirinioak bazter zabalak izanagatik ere, ez zegoen noski tokirik biendako, hartzarendako eta gizakiarendako.

Lekutan gelditu dira Orreagako mendietan ehizaldi bakarrean dozena erdi hartz botatzen ziren garaiak. Hala agertzen da, bederen, XIII. mendearen hasierako kronika batean. Balentria Nafarroako errege Antso Azkarrari egotzi

zaio. Ez dugu, dena dela, sobera fidatu behar erregeen kronikez. Horiexek izaten dira Historiaren lehen manipulatzaileak.

Pirinioetan eta Pirinioetako hizkuntzetan ugaria da lehengo garaietan kokaturiko literatura. Zilegi da, bistan dena. Literaturan dena da zilegi. Alabaina, iraganari modu kritikoan begiratzen ez bazaio, begirada horrek eskas izanen du sinesgarritasuna.

Pep Coll kataluniarra idazle pirenaikoetan pirenaikoena dugu noski. Ezinbertzean, hagitx gai pirenaikoa erabili du bere azken nobelan: zer eta Bigorrako herri tiki batean Andre Maria —Ama Birjina— Bernadette Soubirus neska gazteari agertu zitzaionekoa. Horren emaitza, *Les senyorettes de Lourdes* da, begirada zorrotz eta aldi berean amultsua Pirinioetako azken bi mendeko fenomeno erlijioso eta ekonomiko garrantzitsuenaren sorrerari.

Lourdes ere Pirinio baita, bertze gauza eta toki franko ere Pirinio diren bezala.

Hartzaren desagerpenaz ari izan naiz. Bertze animalia enblematiko bazuen ibilbidea ez da arras desberdina izan. Pirinioetako azken otsoak xx. mendearen 50eko hamarkadaren erditsuan bota zituzten Aragoian eta Katalunian. Katamotzaren arrastoa Aussau ibarrean galdu zen, Biarnon, 70.eko hamarkadan. Bukardoak, xx. mende hasieran Erronkaribarren ere ikusten omen zen basahuntzak, juxtu-juxtu ikusi zuen bigarren milurtekoa urratzen: Añiscloko zintzurrean hil zen azkena, Ordesan, arbola batek harrapatuta. Pirinioak ez dira berdinak horiek guztiak gabe. Aurrerapenak bere bidesaria du, eta halako espezieen desagerpena zergaren atal dugu, itxuraz.

Hartzaren inguruko ika-miketan, zera leporatu izan zaie naturazaleari: animalia eta jendearen arteko hautuan, lau zangodunaren alde egiten duela beti, gizakiaren kaltetan. Kontua da, animalia horiek desagertu zaizkigula, baina haien desagerpenak ez duela Pirinioetako giza populazioa handitu. Aitzitik, zenbait ibarretan ia-ia batera desagertu dira animalia eta gizakia. Zer pentsatua ematen du horrek.

Ez da gutako inork idatzia, baina zein ederra den, eta zein tristea, Julio Llamazaresen *La Lluvia amarilla* liburua. Ainielle herriko azken biztanlearen azken urteak kontatzen dituena. Ez dut aragoieraz, okzitanieraz eta katalanez egiten den literaturaren ezagutza zabalik. Barkatu beharko nauzue horregatik. Hala ere, apustu eginen nuke etxean bakarrik gelditu den etxeko jaun zahar-tuaren patu ilun eta bakartia gure lau literaturetako gaia ere badela.

Pirinioetako herriak husten ikusi ditu gure aita-amen belaunaldiak. Orobat ikusi, belaunaldiz belaunaldi erabilitako herri-bide eta bidexkak sasiak janak ezabaturik. Gure egunetan, berriz, udaberrian tximeletak bezala loratu dira eraikuntzak eta urbanizazioak mendikateko herrien inguruetan. Mendi-pistak, bertzalde, kaskorik garaienetaraino hupatzen dira. Gure gaztetan hutsik edo erdi hutsik ezagutu ditugun bazterrak jendez mukuru ageri dira egun, asteburuetan eta opor garaietan. Neguan, sarriok jauzika zeharkatzen zituzten bizkar pikoetan, gazte oihulariak lerratzen dira orain beren *snow* taulekin. Udan, *hidrospeed* edo *rafting* egiten da almadiak jaisten ziren ur ibilgu beretan. Pirinioetako biztanleak espainola edo frantsesa ikasi behar izan zuen, eta ingelesa ikasten ari da orain. Beharko.

Sarriok, bederen, ez dira galdu. Almadiak orobat, badira, baina ikuski-zun bihurtuak. Burgin —Erronkaribarren— besta antolatzen dute urtero haien inguruan. Almadia Eguna —hala du izena— urtean behin egiten dute, maiatzaren hasieran. Garai horretan, harro eta handi etortzen da Eska ugaldia. Horiek txaloak, jendearenak, enbor elkarri lotuak eta haien gidariak ur gainean dantzan ikustean! Almadiazain ibilitako aitatziren bati ihes egingen dio, beharbada, malkoren batek, denbora zaharren gomutan. Gaztaro aspaldi joanak ematen dio min, haatik, ez lanbide galduak.

Hegoaldeko euskal Pirinioetako almadiazainaren autobideak ziren Eska eta Zaraitzu ugaldia. Aragoi ibaian topo egiten zuen *navatero* aragoiarrarenkin. Handik, elkarrekin egiten zuten bidea, Ebro besarkatu eta Zaragozara ailegatu arte. Bortz-sei eguneko bidaia zen, eta ez nolana hikoia. Errekaren bihurtune bakoitzean noiz itoko, noiz burua haitz baten kontra lehertuko, noiz hotzak akabatuko ibiltzen ziren, ordain eskas baten truke. Itzulera oinez egiten zuten maiz. Ez zen trenean irabazi urria xahutu behar. Erran gabe doa ibar hauetako jenderik landerrena, pobreena, erromesena, gosekilena zela almadiazaina. 1936ko sarraskian, ibar hauetan fusilatu zituzten anitzek almadia zuten udaberriko eta udako lanbide. Bertze batzuek ihes egin ahal izan zuten, bortu hurbila lagun. Erronkariar andana borrokatu zen Errepublikaren 43. dibisioan, Antonio Beltrán *el Esquinazau* Canfrango seme famatuaren agindupean. Gure artetik, Joxi Basterretxeak heldu dio, *Mandatariaren gerra* bere nobela laburrean, Bielsako poltsako balentriari.

Gerlarako grina gizateria bezain zaharra bada, literatura bezain aspaldikoa da gerla idazgai bilakatzeko isuria. II. Mundu Gerlak Ipar Katalunian eragindako oihartzunak entzuten ahal ditu Joan-Daniel Bezsonoffen *Les amnésies de Dieu* nobelaren irakurleak. Ana Tena aragoiarrak, berriz, makien garaia hautatu du *L'ombre la santeta* idazteko. Izanen da oraino zer kontatua, zer istorio bilakatua, gure mendiak gudatoki bilakatu ziren denboretatik.

Almadiazainaren seme garraiolariak ere iraganaren min guti du aitaren lanbidearen aldera. Ofizialki, Esako urtegiak Aragoi ibaiaren ur basak bezatu zituenekoa izan zen gure almadien azkena. Egiazki, mendikateko oihanetako izai eta pago lerdenen enborrak garraiatzeko, lehorreko bideak azkarragoak, merkeagoak eta kaltegabeagoak ziren jadanik delako presatzarrari hondarreko porlan palakada bota ziotenerako. Esa inauguratuz geroztik, Aurrepirinioetako eskualdeek asetzen dituzte beheragoko lurren ur beharrak, hegoaldeko isurialdean bederen. Egarri dagoenari edatera ematea eskatu zaie, eta soberan bete dute agindu biblikoa. Horren ordain, urpean gelditu zaizkie etxeak eta alorrak.

Pirinioetako ura aberastasun iturria da leku zelaietan. Aldiz, herrien eta memoriaren ezabatzaile dugu ibaien erdi arroetan. Urtegi batek eta oroimenaren beharrak kidetzen ditu Jesus Moncada katalan hiztun aragoiarraren *Camí de sirga* eta Iñigo Aranbarri euskaldunaren *Zulo bat uretan*. Mendi hegi geldiak liluratzen bagaitu, ez gutiago liluratzen uraren ibiliak.

Ez da besta izan ibar hauetako bizimodua, gure mendien gainean egin den literaturaren puska batek hala iradoki badu ere. Kepa Altonagak, Jean Etxepare Aldudeko medikuaren gainean idatzi duen biografia guztiz gomendagarrian, gogora ekarri digu Pierre Loti idazle frantsesaren *Ramuntcho* eleberririk gure mendiez agertzen duen kartoi-harrizko paisaia. Altonagak ohartarazi digunez, liburu horretako protagonistek ez dute “bekokiko izerdiarekin ogia irabazten”. Nago ikuspegi inpresionista berak kutsaturik ageri dela, ez bakarrik euskaldunen gainekoa, baita Pirinioen inguruko literaturaren puska handi bat ere. Gure artean, kontrabandisten figuraz eta kontrabandoaren beraren gainean hedatu den irudi erromantiko samarra ez dakit Lotiren lanen oinordeko ez ote den. “Gaueko lanaren” gorazarrea egin duten liburuak ez ditugu falta gurean. Arras emanak gara edozein ekintza, lanbide edo ohituratan kriptobertzaleatasunaren aztarna ikustera. Hartara, Euskal Herria bitan banatzen duen mugaren kontrako mendekutzat jo izan dugu kontrabandoa. Badu horrek bere ifrentzua: euskal idazleak nobela beltzera lerratzen hasi zirenean, kontrabandoaren inguruko istorioak hautatu zituzten lehenik, hirira ausartu baino lehen. Gotzon Garatek, adibidez, halaxe egin zuen *Elizondoko eskutitzak* bere idazlanarekin. Errealitatetik hurbilago egon ohi da genero hau bertze batzuk baino.

Ongi pentsatzera, ez daude hain urruti literatura eta kontrabandoa. Muga debekatuak urratu eta gáinditzeko ametsak bizi ditu bi lanbideak, eta biak muga lausoez baliatzen. Iduri du Pirinioetako ezaugarrietariko bat muga izatea dela, bi estatu handien arteko muga alegia. Estatuaren antolaketak muga garde-

nak nahi izan ditu, eta uren banalerroak mesede egiten diote gardentasun nahi horri. Aldiz, niri bereziki erakargarriak egiten zaizkit, literaturaren ikuspegitik ere, muga gardenak ez baizik eta lausoak eta, nolabait, ordenamenduaren kontrakoak dituzten tokiak: Osondoz haratako herriak (Zugarramurdi, Sara, Urdazubi), Kintoa, Luzaide, Aran ibarra, Cerdanya eskualdea... Inguru hauetako biztanleak ez ote dira pixka bat, idazleen gisa, mugako jendea?

Kontrabandoa ere, dena dela, almadia bezala, nagusiki iraganeko lanbidea da jadanik gure Pirinio puskan. Europa bateratuan, salgaiak —zilegiak nahiz debekatuak— ez dira mendi-lepoetan barna eta inoren bizkarretan iragaten, autobidez eta trailerretan baizik. Ohiko kontrabandistak fini dira. Horien ordez, bentariak nagusitu zaizkigu hainbat mendi-lepotan. Aurreikuspen guztien kontra, Europak ez du benten negozioa ezabatu. Izatekotan, alderantziz. Sektore hau goiti ari da, handitzen-handitzen, manera harrigarrian. Ekonomiak krisi garaiak bizi ditu, baina bentetan krisirik ez da. Ipar nahiz hego, haien eragin ekonomiko eta soziala aztertu gabe dago oraindik. Noizbait irakurriko dugu nobela beltz kitzikagarria, Ibardinen, Dantxarinean, Luzaiden edo Portaleten hazten ari zaizkigun Tijuana tikitian girotua.

Baina, zer ari naiz ni, kontsumoaren gure parke tematiko xumeak literaturarako errebindikatzen, zenbait ehunka kilometro haratago baldin badugu estatu oso bat, Andorra, denda erraldoi bilakatua? Albert Villaró hangoa da eta paletako kolorerik ilunenak probestu ditu *Blau de Prússia* idazteko. Nobela poliziakoa duzue eta, idazlearen sorlekuan gertatzen da, Andorran. Ez zitekeen bertzela izan.

Animalia espezie batzuk galdu ziren gisa berean, gizakia ere hemendik aienatuko zela uste izan genuen aldi batez. Bizieraren gogorrak eta laborantzari edo abeltzaintzari emaniko etxaldean hustuketak jendeen ihesa ekarri zuen. Mendialdetik lekututako jendez bete zaizkigu Iruñea, Zaragoza, Paue, Tarbes, Lleida, Girona... Horregatik baizik ez bada ere, Pirinioetako literaturaren agertokitza ditut hiri horiek guztiak. Badira urrunago ailegatu direnak. Chusé Inazio Nabarro aragoiarraren *Reloch de pocha* nobelako protagonistak, Pirinioak ditu abiapuntu eta, hamaika ofiziotan ibili ondoan, mundua izan du helmuga. Ez diote denek bide berari segitu.

Almadiazainen eta kontrabandisten oinordekoak kamioilari eta bentari diren gisa berean, eski monitorea edo mendi gidariak ditugu artzain eta unaienak. Bertzelako jendea ere etorri da mendikatera. Naturatik hurbilago bizi nahirik hiritik mendira jauzi egiten duten neohippiak dira guti batzuk. Gehienak, sekto-

re ekonomiko berriek —merkataritzari, turismoari eta mendizaletasunari lotuek— eraman dituzte mendikatera. Mendebaldeak bizi duen etorkin uholdea alde honetara ere ailegatu da. Nafarroako ibar hezeetan, esnegintza edo gaztagintzaren alor itxuraz hain tradizioaletan enplegatu dira peruarrak eta bulgariarrak. Zertaz harritu? Lehenago ere etorria zen jende berria Pirinio aldera.

“Hau ez da Europako basaburua”, aditu nion behin gure ibarretariko bateko biztanle bati. Esaldi adierazgarria da. Hirietako biztanleok basaburu idilikoa nahi genuke Pirinioetan. Munduaren zurrunbilo eta zirimoletatik at gura genituzke mendi eta ibar hauek: aldagaitz, aldaezin, guk jadanik galdu dugun zerbaiten gordeleku. Bizitzatik urrun, hagitz urrun.

Pirinioak bizirik daude, ordea, eta beharrik. Bizirik irauteko borrokaren errealtatea agertu behar luke Pirinioak hautatzen dituen fikzioak.

Tradizioaren eta modernitatearen arteko dialektikak bizi izan du euskal literatura —euskal kultura— xx. mende hasieraz geroztik. Susmoa dut Pirinioetako gainerako literaturetan gauzak ez direla ezberdinak izan. Tradizioak eta modernitateak elkarrekin talka egiten duten bidegurutzeta dira Pirinioak. Gauzak atxikitzeko, gordetzeko, kontserbatzeko nahikundeak berriro beharrekiko topo egiten duen sarioa. Talka edo topaketa horren lekukotasuna ematen dute, nik uste, gure literaturen orrialde gogoangarrietariko batzuek. Euskal Herrikoari dagokionez, Antton Lukuren *Botoiletan* narrazio liburu maltzurra dut oraintxe gogoan. Maltzurkeriarik gabe ez dago literatura onik.

Jakina, aldaketen zirimola onartzea errazagoa litzaiguke, gure hizkuntzak ez balira, animaliekin, bizimoduekin eta herriekin batean, galtzeko kinkan dauden edo leudekeen gauzen artean. Okzitaniako hizkuntzaren eta kulturaren kezka ageri da, konparaziorako, Joan Bodonen liburuetan, *La Santa Estela del Centanari* edo *Lo Libre dels Grands Jorns* nobelen irakurlea ohartuko den gisara. Ildo bereko adibideak ez ditugu eskas euskaraz eta aragoieraz. Arestian irudikatu dudan Camille hirueledun hori, itzali aitzin, komunikazio arazoak izaten ari zen noski bere ingurukoekin. Koitaduari zer gogoratuko, eta euskarari, biarnesari eta Aragoiko mintzairari kontzea! Bertzerik izanen zen Ekialdeko Pirinioetan suertatu izan balitzaio bizitza, hegoaldeko isurialdean bederen. Zer bekaitz gorria sentitzen dugun euskaldunok, aragoiarrek eta okzitaniarrek Kataluniari begira, ezta?

Bekaitz apur bat, dena dela, ez da kalte, lan egiteko pizgarria bada. Bertzela, ez legoke soberan bekaitzari ezagutza gehituko bagenio. Eredu bera partekatzen dugu. Hala ere, zer urria den gure arteko ezagutza! Garai batean, Atturri eta Biduze ibai ertzetako etxalde lapurtar eta baxenafartarretako etxeko

jaunek mutil edo neskato igortzen omen zituzten beren seme-alabak ugaldeaz bertzaldeko etxaldeetara. Gisa hartara segurtatu nahi zuten, *kaskoinez* ikasiko zutela. Ugaldeaz bertzaldeko etxaldeetan, berriz, alderantziz egiten omen zuten: beren gazteak Lehuntzera, Urketara edo Ahurtira bidaltzen, euskara arrotz izan ez zekien. Auzoaren hizkuntza jakitea gauza handia baitzen, traturako, harremanetarako, merkataritzarako, feriarako, ezkonlaguna harrapatzeko... zuberotarren eta biarnesen arteko muga ez beti garbian gauza bera izanzen zen noski. Halakorik ez da orain. Frantsesez egiten dute alde batekoek bertzeoekin. Gaur egun, iduri du kanpoko hizkuntzaren zubia gabe ezina zaigula elkarrekin topo egitea. Literaturan ere bai. Baina kanpoko hizkuntzak ez dira bereziki eskuzabalak gure berri ematen.

Ezinbertzez, Katalunian du sorlekua gure literaturen arteko ezagutza urria pixka bat bederen handitzeko abiatu den ekimen bakarretariko batek. Lleidako Unibertsitateak eta Consell Cultural de les Valls d'Àneu delakoak 14 urte dituzte Pirinioetako Idazleen Topaketak antolatzen, Trobada d'Escriptors al Pirineu, jatorrizko hizkuntzan erratera. Haien helburua, mendikatea inspirazio literario-rako lurraldea bilakatzea. Xede ederra dugu, inondik ere. Hasiera batean, katalanaren eremuetara mugatu ziren. Duela bortz urtez geroztik, Pirinioetako bertze hizkuntzetara zabaldu dira. Aurten idazle okzitaniarrekin egin dute topo Seu d'Urgellen. Joan den urtean, aragoiarrekin bildu ziren Pandicosan. 2005ean eta 2006an, euskaldunok gertatu ginen gonbidatu lehenbizi, Boi ibarrean, eta gonbidatzaile, bigarrenez, hemen, Urdazubin, Axularren herrian. Topaketa horien emaitza liburu bana izan da, gure mintzairetan eman izan direnak. Pirinio mendiak, traba gaindiezina gabe, elkarren arteko bideak zelaitzeko bitarteko gertatu zaigu behingoz. Hastapen bat da. Gehiago behar dugu.

Bitartean, ez gaitu iragan-minak jo behar, etorkizunaren irrikak baizik. Zertaz idatzi ez dugu falta. Mendikate xume honetako gizon-emakumeen joan-etorriek genero eta zabalera orotako milaka lan idazteko adina ematen digute. Esku artean darabilgun tresnaren geroak ematen digu beldurra. Etor-kizun hobearen esperantzak bizi du, adibidez, *La Festa* Robert Lafont idazle eta intelektual okzitaniar handiaren liburua. Ongi aditu duzue: besta, festa, jaia. Horren baikorrak izaten ahal gara? Zilegi zaigu itxaropena gure hizkuntzez den bezainbatean?

Animaliak solas abiatu naiz, eta animaliak solas ailegatuko naiz helmugara. Mintzaldiaren hasieran erran dut: otsoak 60 bat urte ditu mendikatetik desagerturik. Alabaina, 2004az geroztik, zakur basaren aztarnak aurkitu dituz-

te Cadí mendilerroan, Katalunian. Ez omen dira otso iberiarrak. Italiar azpiespeziakoak dira noski. Haien aita-amak Apeninoetatik atera omen ziren, duela 20 bat urte. Okzitanian barna ailegatu dira gure mendietara, ehunka kilometro egin ondoan. Agian barkatuko naute Cerdenyako eta Berguedáko artzainek. Ni ikaragarri poztu nintzen albistearekin.

Katamotzaren berri gehiagorik ez da, baina bukardoaren ADN a gorde dute. Nork daki, beharbada zientziak miraria egingen du eta berriz ere jauzika ikusiko dugu gure basahuntza Ordesa, Bujaruelo eta Pineta aldean.

Eta hartzez... Zer erran hartzez? Iduri du ez garela oraingoz *Martin* zahararen azkenaren lekuko izanen.

Mintzaldi honen akabantza idatzi baino lehenago etorri da albistea: Camillek badu nork ordezkaturia. *Néré* du izena. *Néré* ez du Pirinioetako hartzen odolirik. Esloveniarrak ditu aita eta ama. Hala izanagatik, ez da arrotza mendikatean. Pirinioetan sortua da *Néré*. Orain, Camille-ren jabego ziren oihan eta malkarren jaun jartzen ari da, Nafarroaren, Biarnoren eta Aragoiren arteko lurraldean. Ikasiko ote ditu gure hizkuntzak?

Hartzarekin agintariek ez dute erabateko desagerpenaren esperoan egon nahi izan zerbait egiteko: kanpotik errefortzuak ekarri dizkiete Frantziako gobernuaren ekimenez. Deigarria ere bada, ezta? Horren sentiberatasunaren erdia ere ez du agertzen Parisek bere mendeko hizkuntza tikiakin. Ekimena, badakizue, ez da denen gustukoa izan. Ehiztariek eta abeltzainek gogor egin diote kontra. Mendikatearen hegoaldean, nork jarraiturik ez du izan, ekologisten eskariengatik ere. Eskuinak Frantzian agintea berreskuratu duenetik, etenik gelditu da Balkanetatik plantigrado gehiago ekartzeko programa. Hala ere, *Martin* zahararen itzulera egiazta daitekeen zerbait da, haren berri aspaldi izan gabeko lurraldeetan.

Aurtengo maiatzean, Cauterets ondoko mendietan ginen hiru lagun, Nafarroako erregina Joana Albretekoak bere ajeak sendatzera joaten zen tokitik hurbil. Udaberria ederki sartua izan arren, elur berantiarrak zuriturik zeuden bazterrak. Zer erranen dizuet paisaiaren ederraz! Alde batera, eguzkiak distira ateratzen zion Vignemaleko kasko harroari. Bertzaldean, ikuspegian genuen aragoiarrek La Faixa deitzen duten harrizko piramidea. Lakuz laku joaki ginen, izerditan eta, aldi berean, inguruaz gozatzen. Halako baten ertzean, hara!

Hartzaren bortz hatzak, geruza zuriaren gainean landaturik.

Isilik eta geldi, gure begiek bazterrak inguratu zituzten. Elurra, harria eta ura baizik ez genituen ikusi, bistan dena. Nerabe bat nintzela Anso ibarrean

—Aragoin— egin nuen gau hura etorri zitzaidan gogora, gogora etorri ere artzainen oihua, beren hizkuntzan: “l’onso! l’onso!”. Orduko zirrara berritu nuen hogeita hamabi urte geroago, Bigorraren sabaian -Okzitanian.

Zer erran nahi duen horrek guztiak? Ez dakit. Baina uste dut zerbait erran nahi duela.